



VI ERANSKINA

PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEEN BETEKIZUNAK

PROIEKTUA ONARTZEKO BALDINTZAK	EBIDENTZIAK ETA INFORMAZIO ITURRIAK
1.- Ikastetxe eskatzaileak zuzendaritza egonkorra du 2022-2023 ikasturterako.	I. eranskinaren erantzukizunpeko adierazpena, 1.3.b puntua Hezkuntzako ikuskaritzak baldintza hori berretsiko du ¹ .
2.- Irakasleen Klaustroak onartu du proiektua, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta, hala badagokio, Batxilergoko etapetan irakasten duten irakasleen eroldaren % 100eko partaidetzarekin.	Klaustroaren bozketa-akta (II. eranskina)
3.- Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) onartu du proiektua, gehiengo osoz.	OOGaren bozketa-akta (III. eranskina)
4.- Proiektua DBHko ikasleen familiekin kontsultatu da, eta emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzarekin onartu da.	Familiei egindako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (IV. eranskina)
5.- Proiektua DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin kontsultatu da, eta emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzarekin onartu da.	Ikasleentzako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (V. eranskina)
6.- Bigarren Hezkuntzan irakasten duten Departamentu guztiek eta irakasleen % 100ek proiektuan parte hartuko dute. Parte-hartze hori ikasleekiko zuzeneko elkarreraginari dagokio, ohiko eskola-jardunalditik kanpo ikasleari eskainitako ordutegian. Ikasleentzat proposatutako irakastorduak eta eskolaz kanpokoak berrantolatzea bermatzeko eta ahalbidetzeko, irakasle bakoitzak irakastordu eta/edo hezkuntza-errefortzu gisa aurreikusitako orduetatik gutxienez ordubete emango du astean (ordu horiek ezin izango dira astean 18 ordutik gorakoak izan) edo jarduera osagarrietarako aurreikusitako asteko 7 orduetatik ordubete, Hedatze proiektuari	I. eranskineko 4. puntuaren erantzukizunpeko adierazpena.

¹ Kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko azaroaren 22ko [Ebazpena](#). Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa atzeratzen duena (zuzendari-kargua 2022ko ekainaren 30ean hutsik geratuko den ikastetxeetakoa), eta egoera bakoitzean egin beharrekoa arautzen duena² **Bigarren xedapen gehigarria**. ntuan hartuko da Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko azaroaren 22ko [Ebazpena](#), **Bigarren xedapen gehigarria**.



<p>eskaintako ordutegian ikasleekin zuzenean elkarrengaitzeko. Egoera hori irakasle bakoitzaren DAEn jasoko da.</p>	
<p>7.- Proiektuan parte hartzeak ez dakar inola ere jantoki-zerbitzua desagertzea (zerbitzu hori eskaintzen ari diren ikastetxeen kasuan). Eskola-garraioko zerbitzuari dagokionez, zerbitzu hori eskaintzen bada, aurkeztutako proposamenak zerbitzu horrekiko bateragarritasuna jasotzen du.</p>	<p>Hedatze proiektuaren eskaera. (I. eranskina, 2. eta 3. puntuak)</p>
<p>8. – Proiektuak ikastetxearen ordutegia zehazten du, indarrean dagoen araudiaren arabera, Hedatze proiektuan hautatua izan ezean.</p>	<p>(I) bis eranskina: ordutegi-proposamena, 1.1 puntua.</p>
<p>9. Proiektuak ikasleen eskola-ordutegia aldatzeko proposamena zehazten du, aurreko puntuan ezarritako ordutegitik abiatuta, eta proposamenak honako baldintza hauek betetzen ditu:</p> <p>a) Astean 30 saio antolatzeko eskola-ordutegi berriak ez du ikasturte osoko eskola-denbora murrizten.</p> <p>b) Eskolaz kanpoko ordutegiaren proposamena astean 6 ordukoa da gutxienez, eta 180 ordukoa urtean.</p>	<p>(I) bis eranskina: ordutegi-proposamena, 1.2 puntua.</p>
<p>10. Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak.</p> <p>Ikasleek aukerakoa izango dute eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, eta familien esku geratuko da haien seme-alabek ikastetxeko jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuetan emango duten. Hala ere, proiektuan zehazten da zer estrategia ezarriko diren ikasleek ahalik eta parte-hartze handiena izan dezaten eskolaz kanpoko jardueretan.</p> <p>Parte-hartzeari dagokion hautazkotasuna ez da aplikatuko aurreko ikasturteetan gaiturte gabeko irakasgaiak dituzten ikasleen kasuan, ezta ebaluazio arruntetan irakasgairik bat gaiturte ez dutenen kasuan ere; kasu horretan, parte hartzea nahitaezkoa izango da.</p>	<p>Hedatze proiektuaren eskaera. I. eranskina, 5. puntua.</p>